

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1643

390/2025 EBAZPENA, apirilaren 7koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Izaro Isasa Sarasola andrea Kirurgia Orokorreko Unitateko (Arantzazu 3. 1.) gainbegirale izendatzen baita, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.

Otsailaren 13ko 166/2025 Ebazpenaren bidez (otsailaren 26ko EHAA, 39. zk.), deialdi bat egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko ESIko Kirurgia Orokorreko Unitateko (Arantzazu 3. 1.) Gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Izaro Isasa Sarasola andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Kirurgia Orokorreko Unitateko (Arantzazu 3. 1.) Gainbegirale izendatzea, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Izaro Isasa Sarasola andrea Kirurgia Orokorreko Unitateko (Arantzazu 3. 1.) Gainbegirale izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2025eko apirilaren 7tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak honako hau eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, ezaugarri berberak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurralde-eremu berberetan. Atxikitze horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko ESIari ebazpen honen berri ematea.

2025eko apirilaren 14a, astelehena

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2025eko apirilaren 7a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria,
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.